

Bero-beroan

Euskaltegien ikasturte berria

40.000 IKASLE inguru espero dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegietan, alegia, iaz baino milaka batzuk gehiago. 2007-2008 ikasturtean 36.384 matrikula izan ziren. Euskaltegiek aurten izango duten berrikuntza azpimarragarrietakoa da euskarazko tituluen konbalidazioa. Eusko Jaurlaritzak joan den apirilean onartu zuen dekretua eta horri esker euskarazko tituluak Europako Markoarekin parekatu eta elkarrekin baliokidetu ditu.

Euskaltegi homologatuen sarean, 107 euskaltegi daude, horietatik 39 udal euskaltegiak, 60 pribatu homologatuak eta 8 autoikaskuntzako zentroak.

Batez beste 35 urte ditu ikasleak, % 69 emakumezkoak dira eta % 31 gizonetzkoak. % 27 langile espezializatuak, liberal edo teknikoak dira, % 20 enplegatu publikoak, % 18 ikasleak eta % 9 irakasleak. Gainerako % 28 hainbat lanbidetakoak eta espezializatu gabekoak dira.

Gazteen erabilera bultzatzeko biltzarra

LEIZAOLA ELKARGOAK antolatu du biltzarra izenburu honen pean: *Gutxiengo Hizkuntzen Erabilera Gazte-rian Sustatzeko Gauzatutako Eskarmentu Arrakastatsu eta Praktika Egokien Biltzarra*. Euskalduna Jauregian egingo dira jardunaldiak azaroaren 20 eta 21ean. Euskal Herriko ekimenak azalduko dituzte eta baita Katalunia,

Valentzia, Galizia eta Finlandiako esperientziak ere, besteak beste. Egitarau osoa helbide honetan: www.hezkuntzagida.com/biltzarra/

“Euskararen sartu!” gida hasiberrientzat

EUSKARA batere ez dakitenentzat eta zertxobait dakitenentzat prestatu du gida IKAk, ikasleek euskara ikasteari beldurra gal diezaioten. Bestalde, IKAk ikasturte berrirako matrikulazio kanpaina irailaren 15ean hasi du.

BAHEA

Joxe Rojasek Teknopataren txokoa blogean esanak: “Bide txarrean goaz, bada, marka hausteko kontuetan... oraintxe bertan egin diot kukutxo bat kanpainarako jarritako deskarga zenbagailuari eta... ekainaren 26tik hona (bi hilabete eta erdi)... 1.688 aldiz baino ez da deskargatu Vista eta Office euskaratzeko paketea. Datua penagarria da, edonondik begiratuta ere. Interpretazio baikor bakarra bururatzan zait niri: jendeak oso arin bereganatu ditu erakundeak enpresa pribatuen produktuak diru publikoaz lau haitzeta sustatzen ibiltzearen aurkako argudioak, eta GNU/Linuxera pasatu dira ordenagailu erabiltzaile euskaldun guztiak, sistema osoa euskaraz, dohainik eta ganoraz izateko. Izan ere, azalpena aurreko hori ez bada, alternatibak triste baino tris-teagoak dira eta”.

Kike Amonarrirek Gaur 8n esanak: “Lehen liburua euskaraz idaztera mila urteko atzerapenarekin iritsi ginen, lehen filma euskaraz egitera hamarkada batzuk beranduago eta gazte hizkera mota hauetara, ordea, besteekin batera. Gure gazteak gaur egungo munduan daude eta euskaraz ari dira. Hizkuntza guztietan badira hizkera berri hau mehatxutzat hartzen dutenak eta bagara hizkera berri hau komunikazioaren aukera gisa hartzen dugunok ere, nahiz eta arriskuak ere ikusten ditugun”.

TALAIAN

Aurrezki kutxak eta interes politikoak

Berriz ere EAEko aurrezki kutxen fusioari buruzko eztabaidan murgilduta gaude. BBK, Kutxa eta Caja Vitalen arteko fusioaz ari gara, Nafarroako CAN jakin baitakigu “Euskaditik kanpo” dagoela! Eta berriz ere, kutxen inguruko arazoa alderdi politikoaren intereserako erabiltzen ari dira. Fusioaren lehenengo arazoa, Arabako PP proiektuaren aurka egotea izan zen, Caja Vital euren eskuetan zegoenean. Gainontzeko alderdiak, ordea, hiru aurrezki kutxen fusioaren aldekoak ziren. Gerora, Caja Vitaleko kontrola PSEren eskuetara pasa zen, bateratzearen aldekoak horiek, baina Kutxen Legea onartu arte itxaron behar zen. Bien bitartean, Ibarretxeren kontsultarekin egin dute topo. Oraingoan, lehendakariaren apustu politikoa dela medio, PSEk uko egin dio kutxen fusioari, EAJK bide “soberanista” (PSEren iritziz) uzten ez duen bitartean. Caja Vitalen arazoak direla eta, orain BBK eta Kutxaren arteko fusioaz hitz egiten ari dira, aurrezki kutxa arabarri atea irekita utziz betiere. PSEren mehatxua, oraingoan PPn babes-tua, berehalakoa izan da: Caja Vitalek EAETik kanpo bila ditzake bazkideak!

Zein ikuskizun lotsagarria! Politikariak aurrezki kutxak txotxongiloak izango bailitzan erabiltzen dituzte. Jabeak eurak izango balira bezala! Bezeroak, kutxen benetako jabeak, baztertu egiten dira. Alderdi politiko bakoitzak aurrezki kutxen kontrola hartu nahi du, eta behin horiek bateratuta, indar ekonomiko eta finantzario handia izan dezakete. Jarrera horiekin, alderdi politikoek diru “publikoa” kontrolatu eta aprobetxatu nahi dutela baino ez dute erakusten. Eurentzat gutxienezkoa da euskal gizartearen interesak defendatzea. Bestalde, “ahaztu” egiten zaie, interes politikoengatik baita ere, CAN orain gutxi arte gutxienez Hego Euskal Herriko Aurrezki-Kutxen Federazioko parte zela.

Juan Mari Arregi

Espainiar Herriaren burujabetza, horra kokka

ESPAINIAKO Auzitegi Konstituzionalak bi arrazoi nagusi erabili ditu Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Kontsulta Legea atzera botatzeko, biak ere oso aurrekusiak eta aipatuak alde aurretik. Edozein modutan ondo da ikustea auzitegiak nola arazoitzen duen ezetza, gaur egun errealitatearen interpretazio zehatza zein den oso argi ikusten delako.

Lehen argudio nagusian, kontsultaren aurkakoek behin eta berriz errepikatu bezala, Konstituzionalak argi utzi du kontsulta eta erreferenduma egitea gauza bera dela; kontsulta ez loteslea izateak –Jaurlaritzaren argudio juridiko nagusia– ez diola erreferendum izaera kentzen. Beraz, erreferendumak soilik gobernu zentralaren eskumen direnez, autonomietako gobernuek ezin dituzte ez kontsulta ez erreferendumik bideratu, gobernu zentralaren baime-nik barik (Konstituzionaren 149.1.32 artikulua urratzen da).

Bigarren argudio nagusiak burujabetzari heldu dio: Kontsulta Legea egituratu den bezala, berdinetik berdiner dauden bi subjektu politiko aurreikusten ditu, Euskal Herria eta Espainiar Herria, eskumenetan berdinak balira bezala eta ez da, Espainiako Konstituzioak ez baitu horrelakorik zehazten. Eta, beraz, Eusko Legebiltzarraren lege hau ontzat ematean, Espainiar Nazioa eta Espainiar Herri osoari dagokion zerbaite-tan aldaketak eragiten direnez, konstituzionalki ez da zuzena EAEko herritarrek bakarrik parte har dezaten halako kontsulta batean.

Jaurlaritzaren erantzuna tinkoa izan zen terminologiari dagokionez, ez dira txantxetakoak Estatuaren parte batek, Estatu orokorrak hala-koak esatea: "Eusko Legebiltzarrarekiko mesprezurik handiena adie-



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

razten du", Estatuaren izaera demokratikoa eta zuzenbidezkoa zalan-tzan jartzen ditu, "euskal autogobernuarekiko eraso bano sakonagoa da hau", "iritzia eman ezinean gaude". Gogorra den gisan, Estatu hori bera Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegira eramatea, irailaren 23an egingo den bezala. Ez dena samur ulertzen zera da, horren akusazio gogorren aurrean, hainbeste mesprezu, hain eraso handia eta iritzia zanpatua, nola ezin den artikulatu erantzun sendoagorik. Akaso aurrerago... baina musika hori ere ezaguna da. Aurrerago hauteskundeak daude.

LUXENBURGOKO AUZITEGIAK diputazioen zerga ahalmenaz esandakoak pozarren jarri ditu EAEko hiru diputazioetako arduradunak eta Jaurlaritza bera. Madrilgo interpretazio zentralisten garai luze hauetan ez da gutxiagorako, baina argi zuziri jaurtiketekin. Zergen malgutasuna posible dela adieraztea ez da gutxi, baina ezin da ahaztu azken ahalmena EAEko Auzitegi Gorenaren esku utzi duela eta Espainiako Auzitegi Gorenaren jurisprudenzia-ri jarraiki, EAEko Auzitegi Gorenak

ere ikuspegi zentralistak mesedetu dituela hainbat kasutan. Europako doinu juridikoak entzunda, oraingoa gaitzagoa du halakorik egitea, baina ez ezinezkoa.

DONOSTIAKO IGANDEKO istiluak ere klasiko bihurtzearen bidea dar-mate, hirugarren urtean jarraian errepikatzen direnean. Oinarrizkoa beharko lukeen manifestazio esku-bidea arinegi debekatzeko joera hartu du Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak aspalditik. Ezker abertzaleko herritarrek eskubide osoa dute pre-soen eskubide ugari etengabe urratzen ari direla salatze eta eskubi-de horiek aldarrikatzeko. Urte askotan erakutsi den legez, posible da kirol festa eta aldarrikapena uztartzea, berdin aldarrikapen hau askoren gustukoa ez bada ere.

Helburua istiluak saihestea bada, Ertzaintzak istiluak direnean hartu beharko luke parte, ez bestela. Ertzaintzaren parte hartzeak ez zuen inongo istilurik saihestu. Beraz, eta kasu honi dagokionez, Ertzaintzaren parte hartzearen balizko arrazoietan hipotesi gisa kontuan hartzekoa da istiluak saihestea baino beste helbururik ere bazela.